

# MU Gailur Komunitateari batu zaio, landa-ingurune bizi baten alde egiteko

2009/03/30

Mondragon Unibertsitateak landa-ingurunearekiko bere konpromisoa itxi du eta Gailur Komunitateko kide egin da LKS Taldearen eskutik. Azken hori ere ingurune horrekin konprometituriko enpresek eta erakundeek osaturiko sare horretako kidea da. Bere atxikimendua errubrikatzeko, unibertsitateak hainbat lankidetzaz hitzarmen sinatu ditu. Horien helburua landa-ingurunearen garapen iraunkorra sustatuko duten proiektuak sortzea da.

Hain zuzen, Landa Garapenerako Elkartek, Itsasmendikoirekin lankidetzan eta LKSren laguntza teknikoarekin, egindako landa-eremua eta hiria gerturatzeko aukerei buruzko azterketari esker sortu zen Gailur. Horren lana Euskal Autonomia Erkidegoan landa-ingurunea bizirik mantentzeko hainbat sektore eta jarduera-alorretako enpresen eta erakundeen parte-hartzea sustatzeko mekanismoak eta formulak bilatzera zuzenduta dago. Komunitatean sartzeko beharrezkoa da konpromiso zehatz bat hartzea, hau da, kide berriek landa-ingurunea bizirik mantentzeko eta haren garapen iraunkorra bultzatzeko jarduerak eta ekimenak gauzatzea.

## Wifi teknologiaren hedapena

Harturiko konpromisoetariko bat hau da: gaur egun hain garrantzitsuak diren teknologia berriak landa-eremura eramatea, konkretuki, Wifi teknologiak erabiliz datu autonomoak eskuratzeko irtenbideak garatzea.

Horretarako, Mondragon Unibertsitateak eta LKS Taldeak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu dute Itsasmendikoirekin (Euskal Autonomia Erkidegoko landako eta itsasertzeko eremuen prestakuntza, sustapen eta garapenerako zentro integralarekin). Horri esker, Wifi teknologiaren bitartez datuak eskuratzeko irtenbideak garatuko dira, eta abiarazteko hirugarrenen esku-hartzerik ez da behar izango.

Landa-ingurunean hainbat egoera ematen dira. Batetik, lehen sektorean ICTetan oinarrituriko zerbitzuen erabilera, batez ere, enpresaren tamainaren eta hori kudeatzen duen pertsonaren adinaren arabera izan ohi da. Euskadiko nekazaritzaren eta elikaduraren sektorea beste sektore batzuk baino zaharkituagoa eta atomizatuagoa dagoela aintzat hartuta, ICTen arrakasta eta erabilera nekazaritzako eta elikadurako sektorean beste sektore batzuetan baino txikiagoa da. Gainera, gure landa-ingurunean nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategi asko eta asko mistoak eta oso txikiak.

Normalean, ICT teknologietan oinarrituriko irtenbideek azpiegitura batzuk behar izaten dituzte. Esaterako, ingurunean operatibo dagoen telefonia mugikorrek azpiegitura behar du SMSak bidaltzeko sistemak. Hori dela eta, tamaina txikiko ustiategien kasuan irtenbide hori ez da bideragarria, hasierako inbertsioaz gain hileroko finkoa duelako.

Hain zuzen, proposaturiko proiektuak tamaina txikiko ustiategi mistoen lana errazteko ICTetan oinarrituriko koste txikiko irtenbideak eskaintzea du xede.

ICTak erabilera barne duten ideia berriek lan-baldintzetan hobekuntzak ekar ditzakete, eta ustiategi txikien errentagarritasunean eragin.

Hona hemen aplikazio horien adibide bat: web kamerak jarriz gero abeltzaintzako ustiategietan animaliak urrunetik kontrolatu ahal izango ditugu. Proiektu hori garatzeko, beraz, datuak eskuratzeko gailua duen sistema diseinatu beharko genuke, eta Wifi bitartez PC batekin konektatu.

## Idea Berrien Lehiaketa

Horrez gain, unibertsitateak Debagoieneko eta Debarreneko landa-garapenerako elkarrekin, Deba Garaiarekin eta Debemenekin, hitzarmen bat sinatu du, bi erakunde horien Ideia eta Proiektu Berrien Lehiaketa



Mondragon Unibertsitatearen Sustapeneko eta Ekintzailetzako Ekiten Programan integratzeko, 'Landa Garapen Iraunkorra' modalitatepean. Horretarako berriazko modalitate hori sortu da, eta bertan, landa-ingurunea bizirik mantentzeko balio dezaketen negozio-ideiak aurkeztu ahalko dira.

Azkenik, Mondragon Unibertsitateak asmo-deklarazio bat egin du, eta bertan adierazitakoaren arabera, nekazaritzako hondakinek, hala nola, ardien artileak edo intxaurren oskolak, material berriak sortzeko eskaintzen dituzten aukerak ikertuko ditu.